

# KULTUR

2019

ekainak 21 /  
irailak 7



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



EKA 21  
LESACA

EKA 22  
MARTZILLA

EKA 27  
BERA

EKA 28  
TAFALLA

EKA 29  
ORREAGA/RONCESVALLES

UZT 4  
UXUE

UZT 5  
VALTIERRA

UZT 6  
ERRONKARI

UZT 11  
ZUGARRAMURDI

UZT 12  
RIBAFORADA

UZT 13  
OTSAGABIA

UZT 18  
OLAZTI

UZT 19  
ARTAXOA

UZT 20  
MENDIGORRIA

UZT 25  
CORELLA

UZT 26  
LODOSA

UZT 27  
LOS ARCOS

ABU 1  
ELIZONDO

ABU 2  
GARES

ABU 3  
IRANTZUKO MONASTERIOA

ABU 8  
ORBAIZETA

ABU 9  
IZABA

ABU 10  
OLIBAKO MONASTERIOA

ABU 15  
VIANA

ABU 16  
FITERO

ABU 17  
LEKUNBERRI

ABU 22  
DONAMARIA

ABU 22  
ZANGOZA

ABU 22  
LEIREKO MONASTERIOA

ABU 29  
ESTELLA/LIZARRA

ABU 30  
TUTERA

ABU 31  
AZAGRA

IRA 5  
AGOITZ

IRA 6  
ALTSASU/ALSASUA

IRA 7  
LIZASO

KUL  
TUR

EKA 21 2019  
IRA 7

Hogeita laugarren ediziora iritsi da aurten **Kultur**. Hazi egin zaigu urteen joanean, egungo formatura iritsi arte.

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirola eta Gazte-ria Departamentuak antolatzen du eta Nafarroa osoan barna hedatzen den zirkuitu musikal bat eskaintzen du, **herritarrek kalitatezko musika-proposamenak ikusteko eta entzuteko aukera izan dezaten gure lurraldeko musika-tradizio nabarmena han bilduta.**

**Kulturek** kultura-jardueraren deszentralizazioa sustatzen du, Iruñetik kanpora eramanda; eta gure Komunitateko musika-taldeei beren lana beste udalerrri batzuetan erakusteko aukera eman die. Hala, musika-formatu askotarikoak biltzen ditu, bai tradizionalak, bai garaikideak. Baina **Kulturen** programazioak, musika-proposamenez gain, dantza eta arte plastikoak ere hartzen ditu barne. Parte hartuko duten taldeak Nafarroakoak zein beste autonomia-erkidego batzuetakoak dira.

2019an, **jarduera-programa ostegun, ostiral eta larunbatetan garatzen da, ekainaren 21etik irailaren 7ra bitarte, 35 herri eta intereseko lekutan. Horretan, musika-, dantza- eta arte-arloetako** programazio zabala eta ugaria eskaintzen da. Gainera, larunbatetan, tokiko jarduera turistiko bat egingo da proposamen kulturalaren osagarri, **Turismo Marketineko Zerbitzuarekin** batera egituratuta.

**Uztailaren 4tik abuztuaren 25era**, Dantza filmaren irudien argazki-erakusketa egongo da ikusgai **Bertziko Jaurreirriko jauregian; Xabier Artola Zubillaga** argazkilariarenak dira irudiak.

**Mendialdeko, Erriberako eta Erdialdeko herrietako plazez eta karrikez gozatzeko ekimen bat da Kultur.**

# KULTUR



Larunbatetan  
JARDUERA  
TURISTIKOAK

## EKA

### 21 OR LESAKA

Balerdi Balerdi  
Plaza. 20:30

### 22 LR MARTZILLA

Nat Simons  
Gaztelua. 21:30

### 27 OG BERA

Izaki Gardenak  
Herriko Etxeko plaza. 20:30

### 28 OR TAFALLA

Travellin' Brothers Big Band  
Foruen plaza. 20:00

### 29 LR ORREAGA/RONCESVALLES

Nora Abesbatza  
Eliza. 19:00

## UZI

### 4 OG UXUE

Jorge Sánchez eta Eva Niño  
*Troba Kubatarra Bikotean*  
Plaza. 20:00

### 5 OR VALTIERRA

La Tribu Obenbe  
Itxaropenaren parkea. 22:00

### 6 LR ERRONKARI

MugMus  
*Esku Harriak Dantza*  
Pilotalekua. 20:00

### 11 OG ZUGARRAMURDI

Hutsun Txalaparta  
Sorginen Leizea. 18:00  
Leizera sartzeko prezioa: 4,50€

### 12 OR RIBAFORADA

Alberto Arteta Laurok  
Zaldun tenplarioak (Barranco). 22:00

### 13 LR OTSAGABIA

Iñaki Plaza Band  
Plaza. 22:00

### 18 OG OLAZTI

Baobabs Will Destroy  
Your Planet  
Sarasate plaza. 20:00

### 19 OR ARTAXOA

Buffalo River Band  
Quinta parkea. 20:30

### 20 LR MENDIGORRIA

Adriana Olmedo & The  
Disappointments *Voces ikuskizuna*  
Plaza. 20:30

### 25 OG CORELLA

Lemon y Tal  
Foruen plaza. 22:00

### 26 OR LODOSIA

Stacie Collins  
Espainiako plaza - Pasealekua. 22:00

### 27 LR LOS ARCOS

Eunate XXI  
Plaza del Coso. 21:00

## ARGAZKI ERAKUSKETA

Bertizko Jauregia

## UZZ 4 / ABU 25

Kameren aurrean dantzari  
DANTZA FILMEKO ARGAZKI SORTA BAT

### ABU

#### 1 OG ELIZONDO

La Dinamo  
Plaza. 20:30

#### 8 OG ORBAIZETA

La Reina Flower  
Pilotalekua. 20:00

#### 15 OG VIANA

Joshua Edelman  
San Pedroko hondakinak. 20:00

#### 22 OG DONAMARIA

Javier Lopez Jaso  
Marcelo Escrich Quartet *Aporia*  
Jauregia dorrea. 20:00

#### 29 OG ESTELLA/LIZARRA

Huntza  
Los Llanos Kulturaguneko lorategia. 21:00

#### 2 OR GARES

The Eclectic Celtic Band  
Plaza. 20:30

#### 9 OR IZABA

Beletzi!  
Antiteatroa. 20:30

#### 16 OR FITERO

Nadia Álvarez  
Las Malvas plaza. 21:00

#### 23 OR ZANGOZA

Elliott Murphy Band  
Arkupe plaza. 23:00

#### 30 OR TUTERA

No More Blues  
Alfontso Borrokalaria plaza. 20:30

#### 3 LR IRANTZUKO MONASTERIOA

Aranguren Ibarreko Abesbatza  
Eliza. 12:00

#### 10 LR OLIBAKO MONASTERIOA

Iruñeko Ahots Baxuko  
Santa Maria La Real Abesbatza  
Eliza. 19:00

#### 17 LR LEKUNBERRI

Sonakay  
Plaza. 20:00

#### 24 LR LEIREKO MONASTERIOA

Grupo Vocal Elkhos  
Eliza. 19:45

#### 31 LR AZAGRA

La Muza Band  
Foru plaza. 21:00

### IRA

#### 5 OG AGOITZ

Mikelats Dantza Taldea  
*Oñiturak*  
Kultura-etxea. 21:00

#### 6 OR ALTSASU/ALSASUA

Pink Tones  
Foru plaza. 23:00

#### 7 LR LIZASO

Alberto Rodríguez Purroy  
Orgiko oihana. 17:00



**22 LR**

**MARTZILLAKO GAZTELUA**

**Bisita gidatua**

20:30

Gazteluko atea

Prezioa: 3€

Erreserbak:

T. 948 71 35 45

cultura@marcilla.es

**21 OR**

## **Balerdi Balerdi**

**LESAKA**

PLAZA / 20:30

*Galtzen ikasteko metodoa* **Balerdi Balerdi** taldearen azken diskoaren izenburua da. Nafarroako talde beteranoak hamalau abesti aurkeztu ditu disko horretan eta, heriotza, ametsak, frustrazioak edo antzeko gaiak landu ditu ironiaz.

Taldeak hainbat estilo erabiltzen ditu, hala nola, pop-rocka, rock'n'roll klasikoa, pop indartsu eta lasaia eta folk-rocka.

**21 OR**



22 LR

## Nat Simons

## MARTZILLA

GAZTELUA / 21:30

**Nat Simons** da gaur egun gure herrialdean egiten den musika amerikarraren adierazgarri argienetako bat. Abeslari eta konpositore gisa, Bob Dylanen hasierako inspirazioa aitortzen du. Hala ere, miretsi dituen eta eragin dioten artisten zerrenda luzea da, esaterako, Ryan Adams, Nikki Lane, Israel Nash, First Aid Kit edo Brandi Carlile.

*Home on high* bere debuteko albumean (2014) eta ondorengo *Trouble man* EPan (2015), **Nat Simonsek** kritikaren eta publikoaren aitortza jaso zuen eta *Espainiako Artista Onena* izendatu zuten musika amerikarrean espezializatutako Radio 3-eko *Toma Uno* irrati-programaren entzuleek.

Bere azken lana, *Lights* (2018), Ipar Karolinan grabatu zen eta Gary Lourisek egin zituen ekoizle-lanak. The Jayhawks taldearen buru karismatikoa-ren gidaritzapean eta banda bikainarekin (Hiss Golden Messenger) musika amerikarraren oinarri klasikoek gogorarazi eta aldarrikatzen dituzten aspaldiko doinuetan bildutako abesti-sorta argitsuua osatu zuten.

2019ko urtarrilean gaztelaniazko bere lehen singlea argitaratu du: *Segunda piel*, bere *The Way It Is* abestia moldatuta.

22 LR





27 OG



**29 LR**  
**ORREAGA/RONCESVALLES**

Orreagako Erret Kolegiata  
gune monumentalari  
bisita gidatua

16:30 / Klaustroaren leihatila  
Prezioa: 6€

Erreserbak:  
T. 670 28 99 97  
auriaorreaga@gmail.com



28 OR

29 LR



27 OG

## Izaki Gardenak

### BERA

HERRIKO ETXeko PLAZA / 20:30

**Izaki Gardenak** 2012an sortu zen Jon Basagurenek konposatutako abesti batzuei forma emateko. Urte bereko irailean abesti horietako bost grabatu zituzten **Iñaki Llaurenaren** estudioan. Grabazio haiek Oihuka/Elkarrek argitaratutako *Itsasargiak* izeneko EPan azaldu ziren.

2013ko udan, Donostiako Elkar estudioan sartu ziren *Amaieratik hasi* taldearen lehen diskoa grabatzeko Víctor Sánchezekin. Diskoa urte bereko urrian kaleratu zen eta taldea Euskal Herrian gehiago ezagutzeko balio izan zuen.

2015eko udazkenean *Aurri gara* kaleratu zen, aurrekoa bezala Elkarren grabatutakoa **Víctor Sánchezekin**. Lan horrek oso kritika onak jaso zituen eta amerikar/folk estiloko estatuko disko onena aukeratu zuen Mondo Sonoro aldizkariak. Bira luze baten ondoren, 2017ko martxoan atseden hartzea erabaki zuten. 2019an, *Dena osko* kaleratu dute eta agertokietara itzuli dira.

28 OR

## Travellin' Brothers Big Band

### TAFALLA

FORUEN PLAZA / 20:00

15 urte, 8 disko eta 1.000 kontzertu dira **Travellin' Brothers**-en curriculumak janzten duten zifra batzuk.

Datuek bakarrik hitz egiten dute eta aitzakiarik ga-beak dira. 2003ko abenduan bidaiari ekin ziotenetik eta gaur egun arte, bata bestearen atzetik egin dituzte birak estatuan, Europan eta AEBetan, sariak jaso dituzte, esaterako, Europako talde onenarena 2015ean, etengabe parte hartu dute Europako jaialdi ospetsuenetan, euren diskoen kritika ezin hobeak jaso dituzte eta, nola ez, kalitatez eta energiaz beteriko euren zuzeneko emanaldien arrakastari esker, ohiko kontua izan da "sarrerak agortuta" kartela zintzilikatzea.

*13th Avenue South* **Travellin' Brothers**-en azken eta zortzigarren diskoa da. **Brad Jones** handiak grabatu eta produzitu du Alex The Great Recording estudioetan eta **Jim DeMain** mitoak masterizatu du Yes Master Studiosen, Nashville-TN-n.

Soinu-arma hori besapean dutela, anaia bidaiariak prest daude zortzigarren disko hori aurkezteko gutxienez bi urte iraungo duen eta Europa osoa igerotzera eramango dituen bira batean, Ameriketara ere biraren bat edo beste egingez.

29 LR

## Nora Abesbatza

### ORREAGA/RONCESVALLES

ELIZA / 19:00

Zangozako **Nora Abesbatza** 1968an sortu zuen **Fermin Iriartek**. Leku aipagarrietan eskaini ditu kontzertuak, esaterako, Iruña, Salamanca, Málaga eta Sevillako katedraletan; Bartzelonako Generalitatearen jauregian, Nafarroako Unibertsitate Publikoan edo Iruñeko Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean. J.F. de Iribarren, L. Elizalde, A. Guerrero, L. Ondarra eta Zangozako beste konpositore batzuei buruzko hainbat disko monografiko grabatu ditu.

Europako hainbat hiritara ere eramandu bere musika: Erroma, Paris, Viena edo Pragara. 2005ean, San Frantzisko Xabierkoaren Mendeurrena zela eta, Nafarroako Gobernuko eskatuta, kontzertu bat prestatu zuen santuaren inguruan eta hainbat hiritan eskaini zuen: Valladolid, Santander, Madril, Barakaldo, Gasteiz eta Sevilla.

**Nora Abesbatza** Nafarroako Abesbatzen Federazioan dago sortu zenetik. Abesbatzaren helburuetako bat historian zehar egon diren Zangozako musikarien ondarea aztertzea eta zabaltzea da.

4 OG

## Jorge Sánchez eta Eva Niño Troba Kubatarra Bikotean

UXUE

PLAZA / 20:00

Musikari hauek duela 18 urte baino gehiago osatu zuten bikotea eta gitarren eta biolontxeloaren bidez ateratzen zaie trobaren musika. Euren musika-tresnekin elkarren artean hitz egiten dute eta eszenaratze horretan ahotsa da beti elementu nagusia. Kontzertuan, Jorgeren konposizioez gain, trobadore ezagunen abestiak ere eskaintzen dituzte, besteak beste, Pablo Milanés, Silvio Rodríguez, Polito Ibáñez, Santiago Feliú eta Ricardo Arjona-renak. **Jorge Sánchezek** eta **Eva Niñok** ahotsa, gitarra eta biolontxelo elkartzen dituzte eguneroko kontuak adierazteko, urteetan zehar bizi izandako bizitza adierazteko. Haurtzarotik inoiz amaitzen ez den heldutasunerako bidean, Jorgeren letrak norberarenak balira bezala haztatzen dira. Ikus-entzuleekin duen 18 urtetik gorako komunikazioak hurbila eta konprometitua bihurtu du bikotea inguratzen duen guztiarekin. Haiei entzutea, musika guztiok garen sentimendu bakar baten parte izatea da.

5 OR

## La Tribu Obenbe

VALTIERRA

ITXAROPENAREN PARKEA / 22:00

Aldi bat ezer egin gabe igaro duen arren, La Tribuk ez du galdu bere konposatzeko gaitasuna. Queen taldearen *We will rock you* abestiaren bertsioa baina Miguel Ríosen *Bienvenidos* abestiaren letrarekin egitea, ezinezko nahasketa iruditzen al zaizue? Tino Casalen *Embrujada* abestia Barricadaren *Noche de rock'n'roll* abestiaren riff-arekin blaitu da. Isabel Pantojaren (*Marinero de luces*), Álex eta Christinaren (*¡Chas! y aparezco a tu lado*) eta Willie DeVilleren (*Demasiado corazón*) abestiek bat egiten dute erreperitorio berean, Freddie Mercury eta Chiquito de la Calzadaren erdi bidean

dagoen **Txori García**, *showman* dadaistak ematen dien naturaltasunarekin. Azti horrek, ondo kantatzeaz gain, bakarrikzeta txikiekin aurkeztzen zituen abestiak, algara bat baino gehiago eraginez. Izan ere, **La Tribu Obemberentzat**, abestiak ez ezik, eszenaratzea ere garrantzitsua da, antzerki-ukitu handiarekin zenbait alderditan (bere kasuan, Absurduaren antzerkia, Ionesco maila onean), jantzi-aldaketekin eta askotariko atrezzoekin. Euskal Rock Radikalaren garaia gogora ekarri digute Mecedadesen *Eres tú* supiztailarekin eta denak liluratuta utzi zituzten Mecanoren *Hoy no me puedo levantar* abestiaren letra Guns and Roses taldearen *Sweet child of mine* abestiaren melodiarekin bere melodiarekin baino hobeto datorrela frogatuta. Txantxak nagusi izaten dira bere kontzertuetan, baina txantxarrik ez horrenbeste aldiz dantzatu eta entzun ditugun abesti klasiko horiek jotzeko orduan. Horren lekuko dira Tom Jonesen *It's not unusual*, Hombres G-ren *Sufre mamá* abestiaren letrarekin, AC DC-ren *Thunderstruck* Danza Invisibleren *Sabor de amor* abestiaren letrarekin edo Loquillo y Los Trogloditasen *Cadillac solitario* The Police-ren *So lonely* abestiaren letrarekin. **La Tribu Obembek** estilo musikalak (rocka, popa, pasodoblea, koplá, tangoa, ska, bossa nova, heavy metal, reggaeton...) irensten ditu, adimen handiarekin eta hainbat umore-tonarekin gozatuta.

6 LR

## MugMus Esku Harriak Dantza

ERRONKARI

PILOTALEKUA / 20:00

*Esku Harriak: Oteizaren (h)aria* **MugMus Labo-rategiak** orain arte aurkeztu duen lehen lana da. Bakarkako proiektuetan nahiz proiektu kolektiboetan ibilbide luzea duten artistak lankidetzan aritu diren lehen proiektua ere bada. Oteiza artista polifazetikoak bere ibilbide oparoan zehar sortu-

tako imaginarioaren berrirakurketa egiten du lan honek. Horrela, Oteizaren unibertso zabal eta berezia gogoratu eta berreraiki nahi da, batetik, mugimenduak eta musikak eta, bestetik, cromlecha, hutsunea, espazioaren erabilera sakon eta moldagarria, desokupazioa, eskultura, **Klarion laborategia** izeneko bilduma, musika seriala eta jakinekoa, bertsolaria, txalaparta, **Ez Dok Hamairu**, hitza, “umea”, eta abar aipatzen dituen izaera handiko eszenografia apal baina iradokitzaileak eskaintzen dituzten baliabide metaforikoei esker. Mugimendua (dantza), musika, eskultura, hitza, soinuak, espazioaren erabilera eta abar uztartuz, ikusleak elementu horietan guztietan barrena bidaiatuko du oharkabean, **MugMus Laborategiaren** irakurketa berezi horren bitartez. Musika originala da eta berariaz konposatu da aldi honetarako.



## 6 LR ERRONKARI

### Gayarre eta bere herria ezagutu

11:30 - 13:30 / 17:00 - 19:00

Julían Gayarre Museoa

Prezioa: 2€ (helduak),

1€ (12 - 18 urte bitartekoak eta erretiratuak),

12 urtekoak doan

Erreserbak: T. 948 47 51 80



13 LR

11 OG



AKI PLAZA



**13 LR**  
**OTSAGABIA**

Bisita gidatua Otsagabiara

18:30  
Turismo bulegoa  
Prezioa: 1€

Erreserbak:  
T. 948 89 06 41  
oit.ochagavia@navarra.es



12 OR

11 OG

## Hutsun Txalaparta

### ZUGARRAMURDI

SORGINEN LEIZEA / 18:00

Leizera sartzeko prezioa: 4,50€

Txalapartak bere hastapenetatik izan duen bilakaerari jarraituz, forma moderno eta garaikideetara inoko ibilbide bat proposatuko dugu. Erakusketa didaktikoa da, oinarrizko erritmo tradizionala egiten den hurbilketa historiko eta kulturala. Erritmo horiek non, noiz, nola eta zergatik sortu diren azaltzen dugu, eta gero jo egiten ditugu.

Txalaparta tradizionalaren berezko pultsuari teknika berriak, kolpe berriak eta beste material batzuekin, harriekin, burdinekin, bidoiekin eta abarrek nahasten ditugun zur mota desberdinak gehitzen dizkiogu. Horrela, ozentasun propioa lortzen da, galdera-erantzuna jokoan eta inprobisazioaren jokoaren garrantzian oinarritutako jatorrizko sor-kuntzak lortzen dira. Erritmo, tinbre eta melodia guztiz berriko unibertso batean murgiltzen gara.

12 OR

## Alberto Arteta Laurok

### RIBAFORADA

ZALDUN TENPLARIOAK (Barranco) / 22:00

“Jazza komunikazioa da, sentimenduen truke zintzo eta sakona da eta, horretarako, nahitaezkoa da musikariek elkar ulertzea, bai musika-arloan eta bai arlo pertsonalean”.

**Alberto Arteta** saxofoi-jotzaileak oso ondo ulertu du zein den jazzaren funtsa eta nola sortzen den musika hori definitzen duen magia berezi hori. Sentikortasun horri Albertoren eta bere taldekiddeen fintasuna eta musika-tresnak jotzeko trebetasun bikaina gehitzen badizkiogu, emaitzak **Laurok** boskotearenak bezain ederrak izan daitezke, hau da, **Alberto Arteta** saxofoi-jotzailearen musika-proiektu berriarenak bezain ederrak.

**Alberto Arteta Group** boskotearen bi lan disko-grafikoekin jaialdi onenetan izan ondoren, saxo-

foi-jotzaile nafarrak proiektua estreinatu eta *Behar Bizia* (Errabal jazz, 2019) disko berria aurkeztu du. Disko horretako musikak ikus-entzuleak eserlekuetatik altzaraziko ditu eta, aldi berean, haien ari-men punturik sakonena laztanduko du.

### KIDEAK

**Alberto Arteta:** saxoa / **Chris Kase:** tronpetak & fliskornoa / **Alejandro Mingot:** gitarra / **Kike Arza:** kontrabaxua / **Dani Lizarraga:** bateria.

13 LR

## Iñaki Plaza Band

### OTSAGABIA

PLAZA / 22:00

Proiektuaren zutabe nagusia trikitixa da (euskal eskusoinu diatonikoa) eta txalapartekin (bi pertsonak kolpatzen dituzten oholez osatutako perkusio-instrumentua) eta musikari eta dantzarien talde esperimentatu batekin batera (bateria, baxua eta kontrabaxua, gitarrak, perkusioak, ahotsa eta pianoa) bizia ematen diote proiektu honi. Gure arbasoen erro erritmikoak, gaur egun inguratzen gaituen musika-aniztasunarekin uztartuta, euren bilakaera erakusten dute era guztietako ikus-entzuleak liluratzeko asmoz, konplexurik gabe, musika-genero hori eta, zehazkiago, gure musika eta dantza obra berriak sortuta minatzeko eta horri jarraipena emateko asmo bakarrekin.

### KIDEAK

**Iñaki Plaza:** trikitixa, txalaparta, panderoa / **Kepa Calvo:** bateria, txalaparta, perkusioak / **Carla Sevilla:** ahotsa, pianoa, perkusioak / **Eriz Pérez:** gitarrak, koruak eta perkusioak / **Alex López:** baxu elektrikoa, kontrabaxua, koruak eta perkusioak / **Koldo Uriarte:** pianoa / **Izaro Otaegui:** dantza tradizionala / **Ioritz Galarraga:** dantza tradizionala / **Suso Ramallo:** soinu-ingeniaría.

18 OG

## Baobabs Will Destroy Your Planet

OLAZTI

SARASATE PLAZA / 20:00

**Baobabs Will Destroy Your Planet** euskarazko musikaren panoramaren barruan estilo desberdin bat eskaintzeko asmoz 2014ko irailean Iruñean sortu zen talde bat da. Taldea sortu eta hilabetera lau abestiz osatutako maketa bat grabatu zuten, Zarata Mondosonororako urteko EP onenen artean sartzeko eta Gaztea maketa-lehiaketa barruan Bilboko Kafe Antzokiaren sari berezia irabazteko balio izan ziena. Bultzada horri esker, 2016ko otsailean Londresera joan ziren Abbey Road estudioetan euren lehen disko luzea grabatzera. Estudio mitiko horietan grabatu zuen lehen talde euskalduna izan zen. Euskal Herrian nahiz kanpoan disko hori aurkezteko hainbat kontzertu eskaini ondoren, 2018ko irailean estudiora itzuli ziren *Argiaren abiadura* euren bigarren diskoa grabatzera.

19 OR

## Buffalo River Band

ARTAXOA

QUINTA PARKEA / 20:30

Taldea Iruñean sortu zen 2011ko maiatzean, rock, blues eta country klasikoen estandarrik birsortzeko asmoz, batez ere 60ko eta 70eko hamarkadetakoak. Errepertorio askotarikoa eta aldakorra du. Taldea sortu zenetik hainbat tokitan eman ditugu kontzertuak: Burlatako Blues Jaialdian, hainbat herritako jaietan, Iruñeko eta eskualdeko hainbat tabernatan eta baita Zentral aretoan ere, areto guztia beteta.

KIDEAK

**Jon andueza:** baxua / **Javier Inza:** gitarra / **Luis Perez:** gitarra / **Merche Colás:** abeslaria / **Enrique Lizarraga:** bateria.

18 OG



20 LR

**Adriana Olmedo &  
The Disappointments***Voces ikuskizuna***MENDIGORRIA**

PLAZA / 20:30

**Voces** kontzertu bat baino gehiago da. Abesti ahaztezinak oparitzeaz gain, bide-urratzaile izan ziren emakumeek interpretatutako musikan barrena egindako bidaia da: Aretha Franklin, Janis Joplin, Nina Simone, Nancy Sinatra, Amy Winehouse, Adele... Haien arteaz eta haien legatuaz gozatuko dugu **Adriana Olmedoren** eskutik. Adriana Olmedo agertokiari antzerkiaren magia emango dion eta abesti horien atzean dagoen zirrara eta historia adierazten jakingo duen abeslaria da.

**The Disappointments** taldeak lagunduko dio. **The Disappointments** Hammond organoaren soinuan eta musika beltzaren eraginean oinarritutako musika-taldea da eta inguru honetan batere ohikoa ez den genero honen bertsio instrumentala proposatzen du. Ikus-entzuleek erraz asimilatzeke moduko musika da, dantza egitera bultzatzen duena eta gogoberotasunez betetako energia transmititzen duena.

**Voces** jai bat da, ospakizun bat da. Esateko horrenbeste gauza zituzten emakume haiek gogoratzeko aukera paregabea da.



20 LR

**ANDELOS****Ibilalditxo bat Lúculo  
eta Bacorekin**

19:00 / Prezioa: 6€

Erreserbak:

T. 948 74 12 73

[info@guiartenavarra.com](mailto:info@guiartenavarra.com)

25 OG

## Lemon y Tal

CORELLA

FORUEN PLAZA / 22:00

Beatriz eta Gorka dira **Lemon y Tal**. Egun batean, etxeko leihoak ireki eta runba-haizeak zituen pop – folk musikaren aire guztia sartzen utzi zuten. Euren kontzertuak freskotasun-koktel bat dira, soinu hiritarrez homitutako dotoretasuna da letrek protagonismo handia hartzen duten abesti kartsuetan. Haien zuzeneko emanaldiek koloreak, energia eta grina handia eskaintzen dituzte hainbat hilaibetez *Sueños Coleccionables* aurkezten ari diren 5 taldekideen magiaren bitartez. *Sueños Coleccionables* lehen diskoa dute eta **Martin Music** diskoetxeak berriki berrargitaratu zuen Madrilen jo zutenean *948 Merkatua*-ren bigarren edizioan Indara aretoan emandako kontzertuan erreparatu ondoren. Zizur, Iruña, Burlata, Madril, Cádiz, Salamanca, Huesca, Azagra, Alacant, Agoitz, Zangoza eta Burgos bisitatu dituzte **Lemon y Tal** taldekoek. Kilo-metroak egiteko beldurrik gabe, motxila irribarrez beteta eta gitarra baten poztasunarekin, urtebete baino gutxiagoan musikaren panorama nazionalean tartea egiten ari den Nafarroako talde honek ahotsa eta koloreak jartzen dizkie kaleei.

26 OR

## Stacie Collins

LODOSÁ

ESPAINIAKO PLAZA - PASEALEKUA / 22:00

**Stacie** dagoeneko baditu 4 disko eta zuzeneko DVD-Cd bat... Ahoko soinua eskuan hartu eta, beste hiru musikari onekin batera, Nashville jaioterri-tik irten eta *roots* rock, country eta blues musika gogoko duen jende berria batera konplexurik gabe limurtuz mundu osoan barrena bidaiatuko zuela erabaki zuen. Harentzat ez dago agertoki txiki eta handirik eta mundu osoan barrena ibiliko da eskatzen dioten tokian joz, eta kontzertu bakoitza irabazitako gudu bat izango da berarentzat. Eskura saltzen ditu diskoak, sinatu egiten ditu eta beti du irribarre bat bere zain geratzen diren jarraitzaile guztientzat.

Cowboy kapela, bakero estuak eta ahots berezia, landako edozein txokotan edo tradizio oso errotuak izan arren Europako edozein hiritan bat etorriko den sustrai amerikarreko ikuskizun baterako. Bere musikak dena hartzen du, bere abestiek oinak mugitzen dituzte eta joaten den toki guztietan beti entzuten da: “bikain, a zer nolako ekitaldia...” **Stacie Collins** da, eta urteak daramatza bidaiatzen eta bere musika kutsagarria jotzen, plazak, kaleak eta agertokiak zoriontasunez betez. Sonny Boy Williamson, Z Z Top, Drive-By Truckers edo Blackberry Smokeren musika gogoko dutenentzat.

27 LR

## Eunate xxi

LOS ARCOS

PLAZA DEL COSO / 21:00

**Eunate xxi** ganbera-musikako beste erronka bat, piano eta saxo bikotea musika-estetika sortu-berrian. **Josetxo Goia-Aribek** bere imaginario guztia erakutsiko du bere konposizio eta moldaketekin eta **Javier Olabarrietaren** laguntzarekin eta konplizitatearekin teklatuan. Euren bokazioaren eta musikarekiko maitasunaren arabera gauzak modu desberdinean kontatzeko daude hemen; zer zentzu izango luke, bestela, topaketa honek? Hauxe da bi musikari horien eredu, erronka eta desafioa. Ahozko transmisioari esker chunka urte iraun duten eta halo magiko eta misteriotsua edukiarazten dieten mendealdeko Pirinioko melodia eta adierazpen herrikoiak entzungo dituzu; hori bai, klabe tonalean, modalean eta atonalean moldaketa berriekin, fraseatzeekin eta harmoniekin eta inprobisaziorako tartearekin, beti ere nostalgia-ariketa orotatik eta ohiko bariazio efektistatik ihes eginez. Nafarroan kokatutako eta 800 urte baino gehiagoko basilika erromaniko bat da musika-proposamen honen ikonoa, ezerezaren erdian eraikitako leku bat, garai eta moden gorabeherei zirkunik egiten ez diena eta Javier nahiz Josetxorentzat motibo eta pizgarri dena.

KIDEAK

**Josetxo Goia-Arribek**: saxoak, konposizioak eta moldaketak / **Javier Olabarrieta**: pianoa.

25 OG



26 OR



27 LR



**27 LR**  
**LOS ARCOS**

**Santa María Eliza**  
***(ez da gidatua)***

12:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00

Doan



1 OG



2 OR



3 LR

IRANTZUKO MONASTERIOA (ABARZUA)

Bisita gidatua monastegira

17:00

Monastegiko informazio puntua

Prezioa: 3€

Erreserbak:

T. 948 52 00 12

[mcamon@teatino.com](mailto:mcamon@teatino.com)

3 LR



1 OG

## La Dinamo

## ELIZONDO

PLAZA / 20:30

**La Dinamo** funk dinamikoa da, musika bizikletaren gainean. Gurpilen gainean dabilzan musikarien talde berezia da; ohiko moldeak puskatzen ditu potentzia handiko kontzertu ibiltari batekin eta kale-festa bizi-bizi batekin, funkaren erritmo bizian. Ikuskizun oso hurbila da, publikoak parte hartzen baitu, eta, hala, kontzertu bakoitza paregabea eta desberdina da.

Proiektua 2014an abiatu zen Gironan, **Ander Condonek** bere jatorrizko proiektua gauzatu zuenean, eta zenbait kontzeptu biltzen ditu: musika beltza, kale-ikuskizunak eta bizikleta garraibide gisa.

*MusiconCycles* ikuskizuna 2016ko udazkenean finkatu zen orain duen formatu, estetika eta errepertorioarekin, MACen (MercèArtsdeCarrer) eta Manresako Fira Mediterrània aurkeztu zenean. Ordutik geroztik, taldeak Espainian egiten diren kale-musika eta -artearen arloko jaialdi nagusietan hartu du parte, arrakastaz, eta, halaber, esperientzia luzea du nazioartean, besteak beste, Frantzian, Erresuma Batuan, Belgikan, Alemanian, Portugalen eta Txinan plazaratu baitu bere ikuskizuna.

2 OR

## The Eclectic Celtic Band

## GARES

PLAZA / 20:30

**The Eclectic Celtic Band** Nafarroako folk-taldea da, eta Irlandako musika tradizionala du inspirazio-iturri, baina hori modu eklektikoan nahasten da beste musika mota batzuekin, bai musika tradizionalarekin, bai beste estilo batzuekin.

Taldea 2014an sortu zen, Iruñerriko musika zeltako saioretatik; han, taldeko ohiko lau kidek (Javier, María, Fernando eta Carlos) erabaki zuten modu egituratuagoan aurkeztu nahi zutela beren musika, baina haren freskura eta herri-izaera galdu gabe; honako hau zuten helburu: zenbait herritako

("folk-") ondare kulturalaren (-"lore") melodiak eta giroa publikoarekin partekatu eta harengana hurbiltzea, hala nola Irlandakoak, Eskoziakoak, Euskal Herrikoak eta Bretainiakoak.

ECBk, ohiko kontzertuak emateaz gain, *half folk* modalitatea eskaintzen du; horrelakoetan, publikoari europar sustraiko dantzak irakasten dizkiote; eta, gero, beren musikarekin lagun egiten diote, jende guztia (edozein adin edo esperientziatakoa) dantzatzeraz eta partekatzeraz gonbidatzen duen festa batean.

3 LR

## Aranguren Ibarreko Abesbatza

## IRANTZUKO MONASTERIOA

ELIZA / 12:00

**Arangurengo Abesbatza** 1993an sortutako elkar-tea da, eta abesbatza-kantua lantzea du helburu. Mutiloa herrian (Iruña ondoan) du egoitza, eta, herri hori Aranguren ibarrean dagoenez, hortik datorkio izena.

2016an, Nafarroako Kultura Mezenasgoaren zigilua (MECNA) eman zioten abesbatzari, eta, beraz, enpresek eta partikularrek dohaintzak egin ditzakete abesbatzak bere urteko kontzertu-programa gauza dezan. Gure gogoan, une ahaztezinak gelditu dira iltzatuta, Nafarroan bertan, baita Espainiak eta Europako zenbait hiritan barna eraman gaituzten kontzertuak ere; hango jendea eta beraren ospakizunak ezagutu ahal izana ekarri dugu opari gisa.

**Gonzalo Esparza Imasen** zuzendaritzapean, gurekin batera amestea nahi dugu, eta espero dugu gure ikuskizunaz gozatzea.

## 8 OG La Reina Flower

### ORBAIZETA

PILOTALEKUA / 20:00

**La Reina Flower** Nafarroako hiru emakumeren ahotsek osatutako musika-hirukote bat da, eta gitarra akustiko bat du oinarri. Bigarren maila, beste musika-tresna batzuk ere agertzen dira, hala nola biolina, aho-soinua eta perkusio txikia, eta, kantak behar duenaren arabera, musikara bilduz joaten dira. Musika-tresna horiek guztiak abeslariak berrek jotzea du talde horrek ezaugarri. Honako hau erakutsi nahi du taldeak: edozein kanta interpretatzean musika-ahotsa eta -sakontasun handia eskura daitekeela nahiz eta baliabide eta lagun gutxi izan. Bikaintasuna bilatzen da sinpletasunean, ahots-moldaketa oso zainduen bidez, hortxe baitago funtsean talde horren gakoa. Aukeratutako kantak hiru ahotsetan abesten dira, eta horrek beste dimentsio bat ematen die, edertasunez, ñabardurez eta fintasunez betea. Ahotsek bloke bakarrean funtzionatzen dute zenbaitetan, baina, beste batzuetan, berriz, elkarren artean tartekatzen dira, eta egundoko melodia- eta tinbre-jokoak sortzen dituzte. Entzuten ari denarentzat, **La Reina Flower** esperientziatzat jo daiteke ohiko kontzertutzat baino. Freskoa, zirrargarria, harriargarria eta soila, baina inondik inora ez da oharkabea pasatzen. Taldea osatzen duten hiru emakumeek jartzen dioten goxotasunari eta maitasunari esker, ahaztezin bihurtzen da ikuskizuna, bai zentzumenetarako bai emozioetarako.

#### KIDEAK

**Marifé Cortes:** ahotsa, perkusioa /

**Arantxa Ojeta:** ahotsa, gitarra /

**Selva Barón:** ahotsa, biolina, aho-soinua, irlandar txirula, perkusioa.

**BERTSIOAK:** Madison Violet, Eurythmics, Pink Floyd, The Cramberries, The Corrs...

**GENEROA:** pop/rocka, folka, bluesa

## 9 OR Beietz!

### IZABA

ANFITEATROA / 20:30

**Beietz!** Musika talde hori 2018an jaio zen, Arbizun (Nafarroa). Esleitu zaion desafioari ilusioz eutsi dio zazpikoteak: Euskal Herriko plazak zeltik-parrandaz betetzea. Biolin-, txirula- eta trikitixa-melodia bizi eta gogoraerrazek osatzen dute **Beietz!** taldearen bizkarrezurra. Eta horri punk, rock, pop, ska edo folk pixka bat gehitzen badiogu, **Beietz!** taldearen zeltik-parranda sortzen da.

Haien letrak poesia iradokitzaileak dira, goxoak bezain zorrotzak; gure munduari begiratzen diote, eta, zenbaitetan, bigarren irakurraldi bat eskatzen dute. Kanta guztiak euskaraz dira; taldekideen erdia emakumeak dira eta esperientzia luzea dute agertokietan; izan ere, beste talde batzuetan aritu dira lehenago, hala nola Skalarriak, Trikitiens eta Ortzi taldeetan. Honako plataforma hauetan entzun dezakezu Beietz! taldearen musika: Spotify, Badok, Youtube edo Deezer. Uda honetan, disko osoa grabatuko dute. Gainera, hemen ere aurki dezakezue taldeari buruzko informazio gehiago: Facebook eta Instagram.

10 LR

## Iruñeko Ahots Baxuko Santa Maria La Real Abesbatza

### OLIBAKO MONASTERIOA

ELIZA / 19:00

**Iruñeko Ahots Baxuko Santa Maria La Real Abesbatzaren** kide gehienak **Santa Maria La Real** eskolaniako ikasle ohiak dira. Hura 1950ean sortu zen, haur kantarien abesbatza bat osatu, eta, hala, Katedrala Eliza Santuko eta Iruñeko parroki-etako liturgia-ospakizunetako alderdi musikalarri laguntzeko asmoz.

Ahotsen kalitateari eta **Javier Redin** haren zuzendariaren lanari esker, Europako zenbait lekutatik deitu zioten Eskolaniari hainbat kontzertutan parte hartzeko.

Gizartean izandako aldaketek eragotzi zuten proiektua egonkortzea, eta, hirurogeita hamarreko hamarkadan, bertan behera gelditu zen. Zorionez, sorreraren berrogeita hamargarren urteurrenak ikasle ohien gogoa piztu zuen, eta, hala, 2000. urtean, **Iruñeko Ahots Baxuko Santa Maria La Real Abesbatza** osatu zen.

Sortu zenetik, **Pedro María Ardáiz** organo-jotzaile eta musika-zuzendari ezagunak zuzendu du.



10 LR

### OLIBAKO MONASTERIOA (CARCASTILLO)

Bisita monastegira  
(ez da gidatua)

9:30 - 12:00 eta 16:00 - 18:00

Prezioa: 2,50€

10 LR

9 OR



15 OG



16 OR



**17 LR**  
**LEKUNBERRI**

**Bisita Bikain gaztategira,  
mantentzen den ohitura**

18:00

Ongi etorri etxea - Etxarri-Larraun  
Doan

Erreserbak:

T. 672 42 33 36 / 608 87 57 29  
quesosbikain@gmail.com



17 LR

15 OG

## Joshua Edelman

VIANA

SAN PEDROKO HONDAKINAK / 20:00

*Self Portrait* New Yorkeko artistaren disko barnekoiena eta autobiografikoena da; berak ekoitzi du **Jazz Basque Country** bere diskoetxearekin. Bikotean egindako eszenaratzea da. Joshua Edelman (piano) eta Yelsy Heredia (kontrabaxua). Edelmanek jazz klasikoaren aldeko apustua egin du, Manhattaneko (bere sorlekua) estiloari jarraituz, baina Amerikaren eta Europaren artean egindako joan-etorri etengabeen eraginekin. *Self Portrait* Manhattanetik etorritako pianista, konpositore, ekoizle eta pedagogo horren bederatzigarren diskoa da, eta barren-barrenearaino ailegatu eta hunkitzen duen jazza biltzen du. **Joshua Edelmanek** hogeitau urte daramatza **Yelsy Heredia** kontrabaxu-jotzaile polifazetikoarekin bizitza musikala partekatzen, eta lan hau bien arteko elkarriketa bat da. Proiektu horretan, gonbidatutako zenbait artista ere igotzen dira agertokira, hala nola artistaren seme bikiak, Ander eta Julien.

16 OR

## Nadia Álvarez

FITERO

LAS MALVAS PLAZA / 21:00

**Nadia Álvarez** Leongo konpositore, abeslari eta gitarra-jotzaile gaztea da. Madrilen bizi da eta dohain berezia du sentikortasun liriko eta melodikoetako betetako kantu goxoak sortzeko. Haren estilo berezi eta erakargarria indie-folk korrontearekin lotu izan da askotan. Bere konposizioetan, egile-kantagintzaren alderdi barnerakoenak esploratzen ditu, baina haren musika-eraginak honako hauek hartzen ditu barne, besteak beste: amerikar sustraiddun rocka, gaztelaniazko pop melodikoa eta indie-folk korronteko erreferente hurbilagoak, eta, hala, haren kanta poliki-poliki dastatzeko moduko mokadu musikal ezin goxoagoak dira.

*Salto al vacío* lehen disko luzea (Cabana Media Records, 2015) argitaratu eta gero, Nadia Álvarez

bueltan da *Mundos sutiles* diskoarekin; lan hori samurtasunez eta arreta handiz landua da, eta musikariak Antonio Machado poetari egindako omenaldia da. **Juan Marigortak** (Estudios Tripolares, León) ekoitzi du, zeinak RobDeLion, Cooper edo The Bright artistekin ere lan egin baitu lehenago. Baina, gainera, Nadiarekin batera aritzen den musikarien taldeari esker, lan hau mugarri bihurtu da beraren karreran: **Jesús Sangui** gitarra-jotzaileak, **Daniel Campillo** (Kuve, Sonograma) bateria-jotzaileak, **Ángel Herranz** (Rubén Pozo, Sonograma) baxu-jotzaileak eta **Álex Larraga** (Joel Reyes, Fiat Band) teklatu-jotzaileak aldiamio ezin egokiago osatzen dute lan berri honetan Nadiak modu elegantean eta isilean igarotzen dituen mundu horiek eraiki ahal izateko.

17 LR

## Sonakay

LEKUNBERRI

PLAZA / 20:00

**Sonakay** ijitoen eta euskaldunen sustrai sakonak dituen taldea da, eta euskal musikaren harribitxien euskarazko bertsioak egitea du ezaugarri nagusi. Bertsio horien artean, Mikel Laboaren *Txoria txori* nabarmentzen da. Kanta horrekin, aho bete hortz utzi zuen telebista-programa bateko epaimahaia. Orduraz gero, taldekideak, **Jonatan Camacho Jony** (ahotsa), **David Escudero** (lehen gitarra), **Ramón Velez** (bigarren gitarra), **José Luis Jiménez** (baxua) eta **David Bernárdez** (perkusioa), etengabe aritu dira kontzertuak ematen eta ekitaldi oso garrantzitsuetan parte hartzen. *Sonakay Denontzat* beren lehen albumaren izena da, eta 2018ko irailaren 17an argitaratu zuten. Han, berek sortutako abestiak ere bildu dituzte. Proiektu hori, zalantzarik gabe, publikoarengana ailegatu da, eta sendotuz doa elementu berritzaileen bidez, hala nola: txalaparta, trikitixa eta, batzuetan, euskal dantzak eta flamenkoa.

22 OG

## Javier López Jaso Marcelo Escrich Quartet *Aporía*

### DONAMARIA

JAUREGIA DORREA / 20:00

**Javier López Jaso-Marcelo Escrich Quartet** proiektu musikalean, jazzaren eta inprobisatutako musikaren bidez, musika klasikoaren, argentinarren eta frantsesaren eraginak suma ditzakegu, baita euskal folkloreak zertzeladak ere.

*Pagoda* diskoarekin arrakasta lortu eta herrialdeko jaialdi eta areto hoberenetan jo eta gero, *Aporía* aurkeztzen dute, musikaren bidez publikoa hunkiarazten jarraitzeko asmoz.

*Aporía* musika bidaiazalea eta jazz-inprobisazioa da. Sentimenduaren ekuazio-mota bat da. Sententzioen labirintoa da; a priori bateraezinak diren erritmoak eta eraginak nahastun dira, baina horiek elkartu eta bat egiten dute autoreek berek planteatutako paradoxa argitzeko.

23 OR

## Elliott Murphy Band

### ZANGOZA

ARKUPE PLAZA / 23:00

Parisen bizi da orain dela 25 urte baino gehiago, erbesteratutako New Yorkiar gisa, baina Elliot Murphy rockzale eta musikariaren karrera inoiz baino aktiboagoa da. 35. album baino gehiago argitaratu ditu; Europa osoan zehar jotzen jarraitzen du, eta fikzio-idazle emankorra da. Horrez gain, kontakizun laburren zenbait bilduma argitaratu ditu, *Café Notes* (Hachette), eta bi eleberri, *Marty May* eta *Poetic Justice* neo-western-a (Tropo). Tarteka, *Rolling Stone* (AEB) eta *Vanity Fair* (Frantzia) aldizkarietan idazten du, baita beste argitalpen batzuetan ere.

4 hamarkada joan dira *Aquashow* izeneko bere lehen album iraultzaile hura argitaratu zuenetik (1973), eta zaleek beren kontzertuak betetzen ja-

rraitzen dute, eta kritikariek, beren albumak gores-  
ten. 2016an, *The Second act of Elliott Murphy* doku-  
mental autobiografikoa aurkeztu zuen, eta, han,  
besteak beste, Billy Joel eta Bruce Springsteen mu-  
sikariei egindako elkarrizketak biltzen dira. Europa  
osoan zehar aurkeztu da, eta, Donostiako *Festival  
Dock of the Bay* jaialdian, publikoaren saria jaso  
du. 2017an, diskoetxean grabatutako azken diskoa  
aurkeztu zuen, *Prodigal Son*, eta, 2018an, *Elliott  
Murphy Is Alive!* zuzeneko albuma.

2015ean, Frantziako Kultura Ministroak Arteen  
eta Letren Ordenaren Zalduna izendatu zuen  
**Elliott Murphy**.

24 LR

## Elkhos Ahots Taldea

### LEIREKO MONASTERIOA

ELIZA / 19:45

**Elkhos Ahots Taldea** 2004an sortu zen, **Carlos  
Gorricho** sortzaile eta zuzendariak eta musika-  
rekin lotutako beste zenbait lagunek sustatuta,  
abesbatza-musika interpretatzeko helburu bakarra  
izanda.

Gaur egun, 22 lagunek osatzen dute, eta horietako  
askok eskarmentu luzea dute abesbatzaren arloan.  
Multzo sendoa osatzen dute; pasioz, sentikortasun  
handiz kantatzen duen abesbatza da. Abesbatza  
horrek kantatzen duenean, zirrara sortzen du;  
eklektikoa da eta, batez ere, musikala.

**Elkhosen** programa oso zabala eta askotarikoa  
da; izan ere, garai desberdinetako lan profanoak  
nahiz sakroak interpretatzen ditu, eta, horrez gain,  
euskal folkloreak lanak sortu eta harmonizatzen  
ditu. Hala, lan-bide berriak ekartzen ditu bai abes-  
batzarako, bai musika-panorama orokorrerako.  
Orobat, mundu osoko konpositoreei egiten diz-  
kie abesbatza-lanak sortzeko eskaerak, eta, horri  
esker, badu abesbatzaren arloko erreperitorio pro-  
pioa eta egungoa.



22 OG

23 OR



**24 LR**  
**LEIREKO MONASTERIOA**

Bisita gidatua monastegira  
eta Leyreko likorea eta  
txantxigorri opilen dastaketa

18:00

Bisitarien harrera zentrua

Prezioa: 3,70€ (bisita gidatua)

2,70€ (dastaketa)

Erreserbak:

T. 948 88 41 50

[visitas@monasteriodeleyre.com](mailto:visitas@monasteriodeleyre.com)



24 LR



**31 LR**

**BODEGAS MANZANOS (AZAGRA)**

Bisita gidatua upategira,  
ardo dastaketa eta magnum  
Manzanos Rosé botila bat  
opari gisa

11:00 eta 13:00 / Bodegas Manzanos  
Prezioa: 35€

Erreserbak:  
T. 948 69 25 00  
[visitas@manzanos.com](mailto:visitas@manzanos.com)



**29 OG**



**30 OR**



**31 LR**

29 OG  
Huntza

## ESTELLA/LIZARRA

LOS LLANOS KULTURAGUNEKO LORATEGIA / 21:00

Bi urte! Bi urte behar izan ditu Huntza seikoteak *Xilema* lan berria argitaratzeko. Disko berria **Huntza** da, goitik behera. %100 Huntza. Hori bai, biribilago, sendoago, helduago eta freskoago. Helduago eta freskoago? Badirudi bi ideia horiek kontrajarrita daudela, baina, ikusten duzueenez, **Huntza** kontraesanez betetako taldea da.

Bigarren lan hori ere **Haritz Harreguy**ekin grabatu dute, eta, nahiz eta bigarren lanak beti sortzen duen beldurra, ziurtatzen dizuet oraingo honetan ez dela horrelakorik sumatzen. Ez da disko luzea, ordu erdi eskasekoa; motz gelditzen zaigun ordu berdea, baina, hala ere... Gure bizitzako zenbat ordu betekoa ditu *Xilema*?

## KIDEAK

**Peru:** bateria eta koruak / **Inhar:** baxua / **Aitzol:** gitarra / **Aitor:** biolina eta koruak / **Iosune:** triki eta ahotsaz / **Uxue:** panderoa eta ahotsa.

30 OR  
No More Blues

## TUTERA

ALFONTSO BORROKALARIA PLAZA / 20:30

Orain dela ia bi hamarkada hasi ginen agertoki-etara igotzen, beti estilo berari jarraituz: musika beltza, besteak beste, swinga, jazz, soula, bluesa, funka eta R&Ba oinarri hartuz. Funtsean, dantzatzeko, kantatzeko eta, neurri berean, gozatzeko kanten moldaketak interpretatzen ditugu, azken hamarkadetako musikari handien kanten moldaketak, besteak beste: Queen, Blues Brothers, Eagles, Tina Turner, Joe Cocker, Christina Aguilera, Stevie Wonder, Nina Simone, Wilson Pickett eta Aretha Franklin.

EHUN kontzertutik gora eman ditugu, gehienak Nafarroan, baina etxetik kanpo ere aritu gara, eta une gorenak izan ditugu sona handiko blues-

jaialdietan, hala nola Donostiakoan, Hondarribikoan eta Burlatakoan.

Gure banda (adin guztietako etxeko jendea) **Silvia Pérez de Cirizaren**, **José Antonio Tuñón**en eta **Andrea García**ren ahotsek osatzen dute. Haizeko sekzioa honako hauek osatzen dute: **Roland Ballester** (tronpeta), **Juana Etxauri** (saxo tenorra), **Mario Fernandino** (saxo baritonoa) eta **Félix Elizalde** (tronboi irristailudun). Eta atal erritmiakoan, **Maite Sánchez Inchausti** (pianoa), **Daniel Cardesa** (gitarra), **Pablo Alday** (baxua) eta **Fernando Laguría** (perkusioa) ditugu.

31 LR  
La Muza Band

## AZAGRA

FORU PLAZA / 21:00

**La Muza Band** taldeak amerikar *brass band* baten soinua dakar, baina folk-musikaren taupada musikarekin.

Zortzi musikarik beren pasioa, bertuosismoa eta energia batzen dute agertokiaren gainean. Balkanetatik etorritako eta Mediterraneoaren esentziak zipriztindutako musikaren ñabardurez eta bizitasunez beteta dagoen proiektu bat eskaintzeko. Hotsen, estiloen eta instrumentu akustikoen nahasketak emozioz eta dinamismoz beteriko ikus-kizun bat eskaintzen du. Bere lan propioek eta munduko musiken moldaketek ezinbesteko taldea bihurtzen dute **La Muza Band**.



**7 LR**  
**ULTZAMA ABELETXE ESKOLA**  
**(LIZASO)**

**Bisita abeletxera**

11:00

Abeletxea

Prezioa: 5€ (helduak), 3€ (haurrak)

Erreserbak:

T. 629 12 64 99

[www.granjaescuelaultzama.com](http://www.granjaescuelaultzama.com)

**KUL  
TUR  
IRA**

**5 OG**

## **Mikelats Dantza Taldea** ***Ohiturak***

**AGOITZ**

KULTURA-ETXEA / 21:00

Ikuskizun honetan, industrializazioaren eboluzioaren istorioa kontatzen da gure ondasun baliotsuenaren ikuspuntutik; ura. Ura beti izan da gure bizitzaren iturri eta izaten jarraitzen du eta horregatik da ikuskizunaren oinarria; bada momentuoro gurekin egon dena eta horregatik guztiagatik bera da istorioa kontatuko diguna entzuterako ohituta ez gauden ikuspuntu batetik. Bere narrazioa da istorioaren momentu ezberdinetan kokatzen gaituena eta ikuslea bidai honetan honoratzen duena.

Ikuskizun hau lau bloke ezberdinetan dago banatuta, zeintzuk haien artean ezberdintzen diren eszenografiarengatik zein kontextualizazioarengatik, non industrializazioaren prozesuan aurrera egingo duen eboluzio historiko bat ikusiko den. Horretarako, aurretik aipatutako narrazioarekin zein proiektzio ezberdinen kontatzen da, istorioaren haria lagunduko duena momentuoro.



Dantza ikuskizun baten aurrean gaude, baina ez ikustera ohituta gauden euskal dantza tradizionalaren aurrean; ikuskizun honekin bilatzen dena generoaren berrikuntza da dantza kontenporaneoago baten mugimenduen erabilera eginez, bi estiloak fusionatuz. Horretarako, Tamara Hurtado-Leza koreografo eta dantzariaren kolaborazioarekin kontatzen dugu. Gainera, ikuskizunak egoerarako bereziki sortutako musikarekin kontatzen du.

KIDEAK

**Leire Leza** y **Oihane San Martin**: zuzendaritza /  
**Ismael Yagüe**: zuzendaritza artistikoa /  
**Igor Martinez** e **Ismael Yagüe**: musika  
Kolaborazioa: **Tamara Hurtado-Leza**

---

## 6 OR Pink Tones

---

### ALTSASU/ALSASUA

FORU PLAZA / 23:00

**Pink Tones**ek *Welcome to the Machine Tour* bira berria aurkezten du; Pink Floyden lan musikalaria egindako omenaldia. **Pink Tones**ek 15 urteko eskarmentuak ematen duen konfiantzarekin ekin dio bira berriari, baina lehenbiziko eguneko ilusio eta gogo berarekin. Kanta eta moldaketa berriak eta etengabe garatzen ari den ikuskizun berriua.

*Welcome to the Machine* birako kontzertuek, irauten duten ia 3 orduetan, bidaia gisako bat, "hegalaldi" bat egiten dute Pink Floyden diskografiako kanta hobereenetan zehar; izan ere, xx. mendeko talde sortzaileenetako bat izan zen. *Welcome to the Machine Tour* 2019, Pink Floyd bete-betean!

---

## 7 LR Alberto Rodríguez Purroy

---

### LIZASO

ORGIKO OIHANA / 17:00

Hirukote-formatuko kontzertu akustikoa. Hor, **Alberto Rodríguez Purroy** kantautore nafarrak



7 LR

bere lehenengo bakarkako diskoa aurkezten du, *Instantánea* (auto-editatua, 2018ko urria); Fredi Peláezek (Pottoko Studio) eta *pressed by* Sarbide Music-ek egin dituzte moldaketak, ekoizpena eta musika-grabazioa.

Beraren marka bereizgarria definitzen duen lan sendoa da; musikaz eta letraz osatuko alkimia eta tonu poetikoaren oreka ditu, errealitateari buruzko begirada ironiko eta askearekin. Dotoreziaz betetako moldaketek 12 *bat-batekoen* (instantánea) melodia ederrak nabarmentzen dituzte, beren mezu ahaltuen bidez, **Rodríguez Purroy**ren ahots goxoarekin helarazita, eta musika-erregistro oso desberdinetan murgilduta (trovaren kanta soila, pop britainiarra edo bluegrassa).

Javier Escorzkok aipatu zuen diskoa Sonidos 2018 erreseinan; Burlatako auditorioan estreinatu zen bandako formatuan, eta Madrilgo Café Libertad 8 aretoan aurkeztu zen. 2015ean, Alberto Rodríguez Purroy Luis Eduardo Auteren hasierako gonbidatua izan Benalmádenako auditorioan, eta Barco, arena y playa singlea grabatu zuen. Nafarroako Gobernuko Kantautoreen Lehiaketaren 2. Saria irabazi zuen, 1997an, Gayarre Antzokian finala kantatu eta gero.

MUSIKARIAK

**Alberto Rodríguez Purroy**: gitarra akustikoa eta ahotsa / **Fredi Peláez**: teklatuak / **Kike Arza**: kontrabaxua.





## Kameren aurrean dantzari DANTZA FILMEKO ARGAZKI SORTA BAT

ARGAZKI ERAKUSKETA

---

**Xabier Artola Zubillaga**  
Donostia, 1957

---

Alkizan (Gipuzkoa) bizi da egun. Argazkilaria amateur autodidakta, gazte-gaztetatik dator kio argazkigintzarako zaletasuna. Gipuzkoako Argazkilaria Elkarteko (SFG) kidea da, 1975-etik; *Fédération Internationale de l'Art Photographique*-ko (FIAP) eta *Confederación Española de Fotografía*-ko (CEF) kide ere bada (ACEF mailako agiridun, azken horretan). Lanbidez irakaslea da, Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatean.



## Xabier Artola Zubillaga

2019ko uztaila

Telmo Esnalek zuzendutako *Dantza*-ren filmatze saioetako argazkiekin osatu dut erakusketa hau. Saio horietan argazkiak egitera gonbidatu nindutenean, ez nekien zer aurkituko nuen; zinemaren mundua ez nuen barrutik ezagutzen, eta ez nekien zer-nolako egoerak eta aukerak izango nituen argazkiak egiteko. Estreinakora joan nintzelarik, baina, Igartubeitiko argitzalen artean dantzarien oin biluziek zurezko zorutik harrotzen zuten hautsaren artean lehen klikak egiten hasi orduko, ernamuindu zen niregan erakusketaren bidez aurkezten dudako proiektu fotografikoa.

*Dantza* film estetiko bat da, non dantzaren bidez istorio bat kontatzen den. Istorio hori herri batean gertatzen da, baserri giroko edozein herritan; munduko edozein lekutan gerta liteke, gertatu ere. Istorio horrek gizakiaren eta naturaren arteko harremanen berri ematen digu, eta biziaren –eta bizirautearen– metafora ere bada, hazia ereiten denetik fruitua jasotzen denerainoko zikloa osatzen baita filmaren

## UTZ 4 / ABU 25

### BERTIZKO JAUREGIA

Egunero zabalik,  
10:30etik 13:30era  
eta 16:00etatik 19:00etara.

Erakusketa doakoa da,  
baina ordaindu egin behar da  
lorategi historikora sartzeko

[artzubi.eus](http://artzubi.eus)

hasieratik bukaerara bitartean, sortzetik heriotzarainoko bidea; lana, amodioa eta festa ere ukitzen dituela.

Erakusketan aurkeztutako irudiotan, filmatze saioetarako prestatutako *set*-etan garatzen ziren koreografia eta eszena ederren berri ematen da, filmaren estetika –paisaiak, koloreak, formak, mugimendua, argia...– islatuz; argazkilariaren begitik eta ikuspuntutik betiere, jakina. Horrekin batera, eta osagarri gisa, filmaren *making of*-ekoak diren beste irudi sail bat ere aurkezten dut.